1.º URTEA

IBAIZABAL

48n GUEIA

IGANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Azaroa-ren 30n | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1902-ko Zemendia-ren 30n

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

Gaztelarrez Dotriñea Eskoletan

Oraingo jakitun egongo zaree gueienok zelan Españiako Gobiernuak aguindu daben eskola guztietan irakatsi daitela kristiñau-dotriñea Gaztelako izkuntzan.

Aguindu ori astakeri andienetariko bat dala adierazoten ekitea, alperreko gauzatzat daukagu; bada, ¿nor izan leike aiñ ukatua ez adituteko iñori irakatsi lekiola ezer berak eztakian izkuntzan?

Beste aldi batzuetan be esan dogu leku onetan zentzuneko gauzea dala iñori ezer esatera joan ezkero berak adituko daben erara esatea, bestelan denporea galdutea dala, eztau ezer ondo ikasi edo jakingo ta.

Baiña zentzunaren kontrako gauzak asmau ta eguiten, eztago mundu guztian españiatarrak lango mutillik. Beste Dierri guztien atzera doaz eurak arazorik gueienetan; astakerietan eta zentzunguetasunetan aurrenengo lerroan doaz.

Guertaera onetan ikasi daikegu euskaldunak zeinbat galdu guenduen gueure leguea galduaz; Madrill-dik aguinduten deuskuez gauzak, beguiratu barik guretzat onak edo egokiak direan, edo artezago esateko, jakiñik guretzako charrak direala. Ikasi daikegu euskaldunak zeinbat galtzen dogun *Congreso*-ra, *Diputaziñoetara* ta Aiuntamentuetara guere botoakaz bialtzen doguzanak bialduaz.

Katalanak iguiñu dira berialase Gobiernuaren aguindu ori jakin dabeenean. *Congresoan* berba eguin deutse garratz Gobiernuari ango diputauak, esanaz aguindu ori charto emona dagoala ta eztabeela beteko katalanak. Errialde atako Batzakuntza edo *Sociedad*-eak be asi dira bialtzen Gobiernuari gogarpen edo *protesta*-k; eta euren artean batek, *Unió Catalanista* izena dabenak bialdu deutso *Ministroa*-ri, urrengo telegrama au:

«*Unió Catalanista*-k gogarpetzen dau gogor zure eguinbidea eskoletan dotriñea katalanez irakasten debekatuaz, eta jakin eraguiten deutsu errialde onetan zure gogoa eztala lortuko».

Orretara berba eguiten dabe prakak euren lekuan daukeezan guizonak. ¡Ondo, Katalanak; gogor eguin eiozue bidebagako aguindu orrei!

¿Entzun dozue, baiña, Bizkaiko ta Guipuzkoako diputaduen artean iñok arnasarik atera dabenik arazo onetan? ¿Entzun dozue emengo diputaziño, aiuntamentu ta batzakuntzarik guertutu dala gogarpen otz bat baiño ezpada eguiteko aguindu orreri? ¡Ez entzun eta ez entzungo!

¿Ezta au lotsagarria? ¿Gueuk autaturiko diputadu edo aldunak zetarako doguz ba? ¿Arrikatz. meatoki, burdinbide, ta beste orelango gauzak zuzenduteko bakarrik? ¿Euskalerriko umeen arimak eztira ezetarako ala? Nozbait gogoratu gaizan guizonak botoa emoterau nori emoten deutsagun.

IBAIZABAL chikiak, bere aldetik, gogarpen bizi bizi bat eguiten dau aguindu madarikatu orren kontra bere irakurleen izenean; eta Katalan ertsuai biotzeko agur bat bialtzen deutso aiñ gogor euren eskubidea gordeten ikusita, esanaz onelango arazoetan euren alde egongo dala beti; eta Euskalerriko euskaldun maisuai esaten deutso, al dabeen erara eztaieela bete zentzunaren kontrako aguindu ori. *Ministro*-ak esan dau, beteten eztabena bere lekutik kendua izango dala.... baiña ezta izango ligoia esaten dan baizen okerra.

BLOA.

AITONA ETA BILLOBACHOA

(Urso churien doñuban)

Aitonacho bat mendian
gaztañ arbolan azpian,
billobachoa laztandurikan
bere besuen erdian,
eseririkan alkian,
zegoen pachara aundian.

——

Aurrari zion: Kuttuna,
zera nere poztazuna;
naigabe, neke, pena guziak
kendutzen dizkirazuna,
aitonaren osasuna
luzatu-arazten dezuna.

——

Zu besoetan laztantzen,
ez naiz beiñere azpertzen;
atseguiñ aundiz nik magalian
zaitut zu beti gosatzen,
¡zeñen pozkidaz orlassen,
detan dembora pasatzen!

——

Maiz emanikan musua,
esaten dio: ¡Gassua!
biotz nerian sartu ta zauden
pare gabeko usua,
au da zorion osua
nere maitecho gozua.

——

Badaukat erregalia,
kanpotikan ekarria:
imajiña bat zillarrezkua
erosi berri berria,
eguiten dizut saria,
ibill dezazun jantzia.

——

Aurrak dio aitonari:
—Badakit zer duben ori;
«*Aitagurea*»euskerazkoa
esan detalako ongui,
pozturikan dit ekarri,
erregali on au neri.

——

—Bai, izar eder maitia,
gozotazunez betia;
orain artian bezela beti
euskaldun izan zaitia,
au nai det nik izatia,
aitonen borondatia.

——

Euskeraz mintza gaitian,
munduan gueran artian,
Jaunaren legue onak gorderik
gueronen borondatian,
anaitasun ta pakian,
euskaldun denak batian.

PEPE ARTOLA.

GABEKO ESKOLAK

II

—Kaisio Pachi.

—¿Zer diñozu Joanpe?

—Pepantonegaz egon naz autuen gabeko eskolak gaitik.

—¿Eta zer gura dau?

—Badakizu arek erderaz emen irekasteari jazorik emoten ezteutzena.

—A beti dago orretan; baña umeak ainbeste ikasi ezarren ¿zegaitik andiak eztabe eguingo? Bildur izango dot beren gurariak utzean gueratu edo guzurtau eztaitezan. Neuk bere estot nai gabeko eskolarik egon daitean eta aleguiña eguin bear dogu galazoteko, baña es Pepantonek diñoan lez, ezpabere bezte era batzuetara.

—¿Zelan?

—Batetik nagusiari ipini leikio eta eguiaz erria pobre dagola eta bestetik ekandu charrak ikasiko ditunela mutillok.

—Olan bere baleite arek gura izatea, baña bestera gura izango dau.

—Aren gurariak aguertu eskero gaurko aguindukoak lazter maipera jeurtiko leukie gure ezkabidea; bai euzkera uzaiñeko gauzak orretan ontzat artzen ditue ba!

—¿Zergaitik ez, eguiazkoak izan ezkero?

—¿Zetarako dozu eguiazkoa dala ta alperrik orretara osteraka ibiltea?

—Zuk eztozus ziniztuten arek diñoazan gauzak.

—Zinistu edo ez zinistu, nik ikuzten dodana da, bape diren guizonak olako gauzarik orretan entzun bere eztabela eguin gura, charto derichoelako izango da.

—Bai zuk ezan gurako dozu jantzi apaindua ta dirua daukena izan ezkero jakituna dala, bestela adiña ondo daukena izan, arek diñoana ontzat emongo dau ¿uzte dozu jantziak eta diruak emoten dabela jakituria?

—Dana dala, zuk eta arek diñoana ipini ezkero, gure ezkariak bete bear dituenari jarki bear gachakoez, eta gaur orretara ezin leike ezer.

—¡Bezte batuko direnari entzu deutzazue ezer!

—Uste dot eztala egongo iñor gabeko eskola ori gurako dabenik, maizua ezpada, eta bera be izillik egongo da guichienez.

—Guazen batzarrera eta ikusi daigun, zek urteten daben.

III

Baturik deituak izan guiñienok, lazter ezan eban Alkate jaunak:

Ordena bat etorri da errira, zeñetan aguinduten jakun gabeko eskolia ipinteko mutil nagosientzat. Batu zaituet erabagui daizuen maizuak ze ordutan eta nun emongo daben eskolia edo zelan obeto izango dan. Emen nik entzuten dodanez badago eskola orren bear izana ze mutillok gauza guichi edo bape estabe jakin bear eskolarik, eta etorri gurarik egongo dira.

Orise zan guchi bat gora bera ezan ebana.

Lazter urten eban batek ezaten ebala.

—Erri onetan ezta bear gabeko eskolarik. Ori olan jorateko eskubidea egon bear dau, zegaitik nik entzun

dodanez erriak dauke aukerea gura badabe ipinteko eta gura ezpadabe ez. Topeu beite naguzien erabagui ori, eta berak diñoana gomutenas adierazo leikio bear danari emen eztagoala gogorik gabeko ezkola ori ipinteko.

Bezte batek ezan eban.

—Gazteak ikastea ondo da, eta eurek gogoa badauke (nik entzun dodanez badauke) echake galazo bear, jakituriak guizona ondu eguiten dabelako Baña eztaitela izan egunezko eskolea lez erderaz, ezpabere euzkeraz, da onelan zerbait ikasiko dabe: bestela nekea emoteko baño ezta izango; bai mutillari, zegaitik alkate jaunak adierazoten emon daben lez, umetan ezeben gauza guichi baño ikasi, neure uztez erderaz euki ebelako ezkolea. Orain beste orrenbeste edo charragoa jazoko da. Mutillak ezingo dabe aditu ezer eta ori eztan lez adiñen jaube direnen bearra azperturik lazter ichiko dabe ezkola ori. Barriz umetan gurazoen zigorraren bildurragaz joaten baziran ezkolara orain bein ichi daienean, inok eztitu errez atzera eroango. Baita guretzat bere izango da neketsua, ze urtearo ornido bearko da lengoen ganera eskola ori eukiteko, eta dagoan unean egunezkorako baño obeto zegaitik bearko dan arguia.

Oztera beste batek.

—Ez orretara ez onetara da ondo ezkola ori, zegaitik izango dan mutillak ekandu charrak eta charrori ikasiko dabe guk bidea irekatzi barik be. Len bere egon zan emen gabeko eskolea eta ibilli zirenak ez eben ikazi gaiztakeria baño....

Atzanez bezte batek.

—Gure auzoteguitik ezin ona etorri leike iñor eta aukerea badago angoak eztogu errira emongo ezer, ze len bere naikoan gabiz orretariko emón bearrakaz ta. Mutillak nai badabe euki daiela euren lepotik.

—Emen ikuzten danez eztau iñok nai gabeko ezkolea eta ainbat modurik onenaz adierazote emon daiola Alkateak aguindukoari eztala ondo ipintea.

—¿Zelan? ezan eban.

Arin ezan eban batek.

—Ezan leikio emengo mutillak eztakiela erderarik eta alperrekoa izango dala eurentzat ezandan lez. Erría lengo bear izanakaz dabillela eztu, eta orain eztuago eguin bear dabela eta atzanez neguan egualdi charrak ugari izan doiazala eta emengo auzoteguirik gueienak eskolara ezin etorri leikezala.

Bezte batek ezan eben.

—Lenengo gauzea ezta zetan ipiñi, zegaitik ezkatuten jakenak ezango daben eztogula gura gabeko ezkolea erderazkoa dalako. Bestetik entzun gura badau aguindukoak naikoa dira bezte ezan diran gauzak.

Atzanean erabagui zan ez aitatuteko gauza ori eta geituteko, aurkitu al bazan, arako bezte erabaguia, zeñetan emoten zan eskubidea eukiteko eskolea, nai ez eukiteko, eta alkateak emoteko guero adierazoten zer erantzuten eban aguindukoak.

P.

Aur kontuak

—¡Biotz nereko aurcho
Aingueru maitia,
Amachoren besora
Etorri zaitia!
Aurchoak jaramonik
Eztio eguiten,
Bere muramarekin
Dabill zoratutzen,
Esanaz niñiari
Diola jarriko
Soincho berri churia
Apapa joateko.
Amak ikusirikan
Ala jostaketan,
Joan eta artu zuen
Bere besoetan
Esanik:—¡Izar nere
Zoragarrizkoa!
¿Ez aldezu aditu
Amachon ojua?
—Niñiakin nebillen
Amacho jostatzen,
Enuen uste iñork
Didala deitutzen.
—Ibiltzen diran aurrak
Bakarrik kanpuan,
Zomorroak eraman
Oi ditu zorruan,
¿Ez altzenduen atzo
Ikusi Juanita
Zomorrok eramaten
Zorruan sartuta?
—Ez, amacho nerea,
Enuen ikusi;
Baiñan eztet eguingo
Gueiago iguesi;
Niñiakin echean
Naiz ni jostakuko,
Soincho pollit pollitak
Dizkat nik jossiko;
Eta guero plazara
Zurekin joateko,
Janchiko det polliki
Nik eramateko;
Kirriki tiki, tiki,
Danbolin soiñuan
anchen danchatuko det
Nere besochuan;
Apaldutzera guero
Guera etorriko
Erresuak eguin ta
Llollo eguiteko.

Felipe Casal ta Otegui.

EUSKALDUN ERDALZALEA

KRIELISON PATENOSTER

I

Etzegoen Tunbalerorentzat (1) errian guizon ondraduagorik Pelis ikasle edo *estudiantia* baiño. Eta Pelisentzat berriz lurbira guzian etzen Tumbalero baiño guizon oberik, eta izan ere etzitekien: eta ala ere baziran, leku guzietan bezela, an ere inbidiosuak, eguiak esaten zituztenak bai, baiña inbidiaz, ez beiñipeiñ ondo-naiz.

Tunbalero Andaluziako trozoetan arranchero asita mutill nagusira eldu zala, eta erdi arra ta erdi droga kuarto apur batzuek eguin zituela, eta orain Markes bat bezela zebillela. Pelisek zazpi urte zeramazkiela ikasteche batean, eta sei kalabaza echeratu zituela; eta oraiñ Tunbalero ta Pelis beren ustetan Diputau ainbat bazirala.

Kooorriente—esaten zuen Tunbalerok—baiño ¿nori zer dio? Eta «amio» (1) isilldu eguin bear. Baiño etzuen iduki izan beiñere Tunbalerok diputau izateko asmorik; zergatik eze diputau izateko diru asko atera bearko zukean, eta eguia esateko, bere buruaren urrengo gueien maite zuena, dirua zan.

Bera izango bazitekien Españiako *hacienda de ministro*, dirua inguratuko omen zukean bai, eta ara nola kontuak ateratzen zituen: «gaur, ikusten degunez, diputau ateratzen kostatzen da guchienez bost milla duro bakoitzeko, eta diru ori dijoa ardantegui, ostatu eta kapechatera, beiñepeiñ gueiena, gorputzen kaltean eta animen gaitzean; eta errietan berriz botoak dirala ta eztirala milla asarre zortzen dira. Atera bitez botoak kandela edo errematera, eta oien dirua dijoala aziendako kajara; eguia da *zinzerri leporala* (2) lapikorako guelldituko litzakiela, baiño len ere ala guelditzen da. Eta era onetan biziko guiñake gozoro errietan, eta aziendak izango luke diru gueiago.»

Arrazoia etzuela are eztet esaten, baiño besteren echea gobernatzen zebillen bitartean, berea bestek gobernatzen zion. Pelisi etzijoakion aiñ gaizki ere Tunbalerorekin, ondo esan eta urdailla aren lepotik maiz samar berdintzen zuela, biotz samurrekoa ezpazan ere Tunbalero jauna.

Eiztari ere bazan edo izan nai zukean beiñepeiñ Tumbalerok. Oi zebillen mendiz mendi; baiño berak esaten zuen bezela, basterren lotsagarri, egundaiño egazti luma bat ere beregandu ezin zuela, eta beti chakurra oi zuen charra. Berak Andaluzian ill izan zituen eperrak eta erbiak nai ainbat, baiño chakurrak ere an onak zituen. Emen etzuen chakur onik, eta argatik edozer gauza emango zukean chakur on bat beregantzeagatik.

Pelisek bazituen bere antzeko bi lagun andik urrean, eta aietako batek zuen chakur bat, «jantalo» izena zuena, eta izenaren jabe zana. Iru lagunak artu zuten chakur onekiñ Tunbalerori ziri bat sartzeko asmoa.

Ara bi lagun, an, chakur bat erdian dutela. ¿Zer darabille? Chakurraren sal-erosia; berrogueita bost oguerleko eskatzen zaltzailleak, eta berrogueita biterdi eskeintzen erosleak. ¡Urase bai chakurra! probentzia guzian ere berdiñik etzuena. Erosleak ere aitor zuen ori; baiño berrogueita biterdi oguerleko ere diru ederra zan. Eldu ziran Pelis eta Tumbalero salerosleakana eta jakitean bigarrenak guertatzen zena, eskeiñi zituen berrogueita lau oguerleko eta chakurra beregandu zuen, esker Pelisekin joanari, zergatik bakarrik joan balitz etzuen aiñ errez beregandu ko chakurra, bada nola Pelis beste bien adiskidea zan, eta gueiago Tunbaleloren, Pelisen bitartekotasunagatik eguin zioten grazia, edo euskera garbian esateko, jo zioten adarra Tunbalerori: bada berrogueita lau oguerleko aietatik amar izan ziran Pelisentzat; eta beste bientzat amazazpiña. Bai, Pelis, Pelison eta Pelisitos irurak ziran bata baiño bestea piñagoak onelako lanetan.

Chakurrak ederra zirudien, baiño izen ura, au da, «jantalo», etzitzaion ondo iduritzen Tunbalerori, eta ala ipiñi zion izen berria, «korrido». Chakurrak etzeritzon ondo izen oni, eta orregatik lengoarekiñ jarraitzen zuen izenez ezpazan ere beiñepeiñ izanez. Erbiak osasunaz eta ugari zebiltzen, baserritar batzuek eskuakiñ arrapatzen zituztela noizikpeiñbetan. Kalparregui-ko Joaneri erosi zion Tunbalerok eizera joan zan aldi batean erbi bat, oso ederra, oguei errealean. «Lotu anka batetik, issegui zugatz batetik, tiro batez ill eta echera, chakur ta erbiarekin», zion Tunbalerok. Esan ta eguiñ, ipiñi zuen zintzillik zugatz batetik eta ¡tump!.... ¡Arraia! Ur eman zion, baiño erbiaren lekuan jo zuen lokarria; au erre zan: eta erbia, ez agur eta ez *arió*, eta eskerrik ere eman gabe bere libratzailleari, nunbait presa zuelako, joan zan iguesi.

Eztakit negarrik eguin zuen Tunbalerok egun artan, baiño eguin ezpazuen ere, urrean zuen.

II

Chakurra saltzea gogoak eman zion Tunbalerori, ez charra zalako (ona zalako ere ez), baiño bera ere zaartuaz zijoan, eta astundu zan eizerako. Ordea; ¿nork erosi naiko zuen?

—¡Jesus! Erosleak izango ziran bai; ¡Korrido! ¿Ez altzan arraietan chakur primerakoa ala? ¿Erosleak? Buruan illerik adiña bai.

—Aizu Peliss.

—¿Zer nai du, Tunbalero?

—¿Nola zuen izena guro chakurragatik berrogueita biterdi oguerleko eskeiñi zituen gazte ark?

—Pelisson.

—¡A, bai! Krielisson. ¿Naiko ote luke erosi chakurra?

—Eztakit ba; lenago errenkuratua dago bedorrekin ta....

—¿Nerekiñ? ¿Zergatik?

—Berak nai zukean chakurra eraman omen zion ta....

—¿Ori da guzia? ¡Ba, ba! *Esprúkulo de moja.*

—Onena izango da, bazkari on bat jarri, eta datorrela jatera, eta arreraziko al diogu nolabait ere.

—Ezaiz aiñ gaizki ere pundatzen.

III

Bazkal ostean neurtu zuen Krielissonek chakurra. ¡Ai ura lastima! ¡Izan bazuen buztana ontza bete luzeago!... baiño ¡lastima!... (Buruari azka).

—Krielisson.

—¿Zer nai du, Tumbalero?

(1) Don Valero

(1) Amigo.
(2) Sinceridad electoral.

—¿Ontza beten gora-berak ainbeste esan nai du eizachakur bategan?

—Ez jauna, baiño nik eztek nai chakurra eizerako.

—¿Zertako ba?

—Ara jauna; ni naiz danbolinteroa eta oraiñ danbolin berria eguiteko asmoan nabill. Chakur orren larruarekiñ eguin ditekela uste det; baiño gaiñera chistu edo chirolariere eguiñ nai nikio bere zorro edo estalkia, baiño ¡lastima!... buztana ontza bete laburrago da chistua baiño. ¡Bazkal aurretik neurri baguendu ere!... baiño oraiñ ¡lastima!...

—Adiskidea; Andaluzian ere ibillita nago, baiño zu bezelako andaluzik eztet ikusi.

—Izan diteke, sinisten diot. Nik eztakit; baiño aditu izan det, andaluzak guezurtiak dirala; eta orretan, ez neronek diodalako baiño, eztit oraindik iñork ikusi guezurrik.

—Ez; baiño zure eguiak Andaluziak dirudite.

—Bai jauna, nik beti eguia; eta eguia nonai beti da eguia.

—¿Eta danbolinteroa zera?

—Bai jauna; eta sinistu nai ezpalu ere, soiñua joko diot pandango bat bota dezan.

—Ez; eskerrik asko, naikoa soiñu, au da, naikoa adar jo dirazu, eta oraiñ zoaz Jaungoikoarekiñ, *Krielisson*.

—Ondo gueldi bedi *Patenoster*.

P. M.

UNTZEA, OLA TA MALLUA

(Ipuiña)

Josten ola beiñ arots bat ibill zan
untzeaz, askok oitu daben guizan.
Baita bere esan daigun
mallua onetan zala arotsan lagun.
Untze gogorran otsak
ziran olantzat guztiro mingotsak;
bada bere erraietan
sartuten ziran samintsu benetan.
Untze biotz-bakoak
ikusten dituz olaren malkoak.
Baiña gogorrik diño:
«¡Bota malkoak! Gueiago be oindiño
botako dozus, ola.
¡Issuri malko samiña ta odola!»
olak entzunik ori,
dirautso laster untze gogorrari:
«¿Pozik ago ni samintsu egoteaz?
Eu be ezago ba zorion beteaz.
Malkoz bustia badot ingurua,
Malluari ba *eskerrak*,
artuten dozus zauri tzar okerrak.
¿Ala nire samiñak
kenduten dautsuz gaur zugan eguiñak?»
¡Aiñbat untze-iazean
dagoz guizonak lurbira-gainean,
gura dabenak bestentzat samiña,
naiz eurak euki zorichar bardiña!

PAULO ZAMARRIPA TA URAGA.

GURE ESKUTITZAK

Zarauztik

IBAIZABAL-en artezkari jauna.

Nere jaun eta laguna; Gaurko egunean asko itzeguiten da *libertadea*-ren gaiñean, eta badira euskaldunen artean ere esaten dutenak, «oraiñ bizi guera libre, oraiñ, ez gure aitonak bezela tonto eta ezjakin bestek esana dana sinistuaz; guk ikusi eta irakurtzen degu gaurko egunean lurraren gañean guertatzen dana, zergatik albistari asko dagozan, baiña gure aitonak etzuten jakiten zergatik denbora aietan albistari banakak ziran eta irakurri ere banakak edo guchik eguiten zuen; oiek ziran arako erriaren kargudun jaunak berak nai zutena eguiteko besteari astakeri galantak sartuaz.» Orrela mintzatzen dira gaurko zenbait seme-alaba, beren aitonak ezjakin eguiñaz, eta samintzenda biotza izketa ori aditzean, batez ere euskaldunen artean ere badirala orrelakoak jakitean.

Euskalerriko gure aurrekoak ezjakiñak zirala diote oraingo zenbait *jakintsuk*, eta beren legue, oitura eta izkera berdin gabea ezeretzat botatzen dituzte; ara bada emen kondairak zer dion.

Mr. Jannet mintzatzen da gure Fueroa-ren gaiñean esaten duela, eztagoala gure libertadea bezelakorik, zergatikan dan bizia eta eguiazkoa, ispillu benetakoa bere izate guztian; gaiñera esaten du nola Inguelesak euskaldunen fueroetatik artu zituztela beren artean dauzkaten leguerik onenak eta iraunkorrenak (1), eta gu euskaldunak ¿izango degu ausardia esateko gure aurrekoak ezjakiñak zirala, eta tontoak gure asaba zaarrak? Ez, benetan euskaldun gueranok, maitatuaz gure legue ta oitura zaarrak eztegu esango, baiño gueren zorigaitzez euskalerrian azi charra zabaldu duten zenbait Ebroz aruztik etorri diranak, eta azi orrek eman du alort edo frutoa euskaldun epelen biotzean, sinisten dutela erdaldun belarri-motz oriek esaten dutena, (orregatik goaz karramarroen antzera gueren oitura zarretan atzeraka).

Euskaldunak ¿noiz arte gaude gueren beguietan dauzkagun ezkatak bota edo kendu gabe, uste degula erdaldunakandik etorriko otedan gure zoriona, irakurriaz oien albistariak, zeñen gueren buruak aizez puztutzen dituzten, eta irakurtzen degun guztia da gure oitura eta legueen kontra esaten dutela guizona dala librea? ¿uste dezute oiek libertadea ematia? ¿etzerate oroitzen oiek berak dirala gure Legue berdin gabeak kendu, ebatsi, edo lapurtu zizkigutenak? Noiz bizi oteziran euskaldunak libertadean, gure asabaren denboran ala oraiñ, irakurleak esango dau.

Esan didate lengo egun batean Zarauzko eche batean beren billera edo lagun artean itzeguiten zutela gure euskera garbiaren gaiñean eta ¿uste dezute IBAIZABAL-en irakurle maiteak itzeguiten zutela gure euskera goratzeko? Ez; esaten omen zuten guizaldi onek bukatuko duela euskara galtzeakin; jakin bezate euskaldun epel, dollor oriek, sarritan orrela mintzatzen badira beren izenez IBAIZABAL-en jarriko dirala, jakin dezan jendeak Euskalerriko belarrimotzak zeintzuk diran, eta guero ez asarratu. Zarauztarrak diran arte ezta euskara galduko zergatik asko maite dan, eta ori bera diot besteguipuzkoako erriakatik

Lengo larunbatean arkitzen ziran emengo Trinidade kaleko ostatu batean zenbat lagun, eta abetako batek atera zuen kajacho bat urre kolorekoa, asi ziran izketan batzuek urrea zala eta besteak dublea zala, ontan an zegoan indiano batek ateratzen du 100 errealeko bat esanaz:—urrea bada ere onen kolorerik eztu—jarririk kajachoen ondoan; an zegoan languille batek sarturik eskua bere sakelean ateratzen du 16-ko bat, au da, ontzako urrea, eta dio:—¿onen antzik bai aldu? Ontan indianoa bere 100 errealekoa arturik, burua makurturik kanpora irten zan.

Aita prailleen elizan eguin da bederatzi-urrena Purgatorioko animaren ondran; egunero esaten zala errosarioa ta beste errezuak gure euskara doatsuan; ala berean eguiten zan kantaldia.

Gueiago gabe beti naiz zure lagun.

J. E.

(1) Erri-Batuak edo *Estados-Unidos*, Inguelesen buztarripetik atera ziranean, komisiño bat bialdu zuten lenengo Euskalerrira ta guero Zuiza-ra, Dierri bietako gobiernua jakiteko ta ikasteko; eta beren antzera taiutu zuten, gaur aiñ indartsu dagoan Dierri gazte eta alitsua. IBAIZABAL.

Guernikatik

Artezkari jauna: Vitoria-ko diruak ezeukien artean emen zortu daben pozkaria ezta izan chikia, ze uzte eben arroaz egoala urre gorria emokai.

Guero jakin danean irurogueirentzat baño eztirela azi dira zer ezanak.

Batak diño. Ori baño ez izatekoan errietara iragarririk ez ebela bialdu bear. Bakarrik Vitorian eguiñaz azko zala.

Bezteak oztera amaikak emon izango dabela agora eroan bear eban oguia erozteko dirua ezkabideak zuzenduten eta orrek diruak atzera biurtu bear leukezala iragarridunak.

Baita badira diñoenak olako gauzarik etzala eroan bear ezeukien buruetara, ze Arabatik eztala iñoz Bizkaira ezer etorri. Alan da guzti bere papera ugari izango da Vitorian.

Onelan guzur edo egui iñerdu deutse orain artean. Emetik aurrera eztira ezango oba diran gauzak, ze entzun dot eleizgizon batek esan dabela pulpitutik laroguei inguruentzako dirua dagoala bakarrik eta izango dala Arabarrentzat dagon guztia.

—

Ostera bere zerbait ezan bear deutsut naparrei eda zakutea gaitik. Albo errietan egon eidira eztiketak.

S. Barbaragaz chimizteak otz eguiten dabenean gomutau oi dan lez, bardin orrek erriok bere artu eukean eztituteko arazu ori, ze Kortezubin eta bezte erri batzuetan egon eidira naparrei dunak, bat edo bezte beintzat, baia onezkero gach orrek ezin leike artun indarrik ikuzten danez.

—

S. Zezilia goizean erezlariok eguin eben aleguina meza naguzian. Arretzaldean pelota partiduan ederto egon zan Gangoiti. Chikiak euki zituan urteiera polit batzuk eta jo eutzezan chaloak. Urzelai eta Baltasarrek ondo eguin eben eta irebazi eben partidua.

Enoia gueiago luzatuten bezte euzkaldun uzaiñeko gauza ezatekorik eztodalako ikusi: Gorantziak eta agur.

Zemendiaren, 24.a

KATU ARRATOIAK (1)

Lengo baten nenguan
etze zar batian
atechu bat ipinten
neure biarrian
arratoiak ebiltzan
inguru gustian
katu baltz bat eguan
lotan su ganian.
Jagui zan katu tzarra
guero izartuta
lepua gora altzaurik
ta ankak luzetuta
eta gueratu nintzan
guztiz arrituta
guero ikuzi neban
gauzia ikusita.
Arratoia juanzan
ur-ontzi batera
egarritu zalako
ura edatera
beriala badua
katua bertara
aurrez aurre jarririk
alkarri beguira.
Katu arratoe biak
ur-ontzi banetan
ura edaten egozan
bildur barik bertan
arratoia burlaka
katu bizarretan
alan ikusi neban
nik egun aretan.
Katua gueratu zan
bere bizarrakaz
arpeguia garbitzen
erkuchu finakaz
arratoia juan zan
bere lagunakaz
beguira katuari
begui trabezakas.

BIARGUIN BAT.

ASTEKO BARRIAK

Egunak etorri egunak joan, udagoi onetako ainbeste egoaizeren ostean aguertu dira eurialdiak.

Aste onetan ugari izan da euria ta aize-mendebala, ichasoa be jaguita ibilli da, ta martitzenean da eguastenean kai onetik urten eben ontzi guztiak atzera etorri bearrean aurkitu zirean.

Pozez ikusten dogu eztala izan ezbearrik Bizkaiko ta Guipuzkoako arrantzaleen artean, gaurarte bein-

(1) Igaroa.

tazt. Orkolaga abadearen iragarriak makiña bat bizi aurreratuten dabe Euskalerriko ichasondoan.

—

Aste onetan, lenengo irakurkizunean diñogun leguez, Romanones ministroaren aguinduak dotriñearen ganean, zer-esan asko eraguin dau gure artean eta batez be Kataluñan.

Errialde atako diputau bati erantzun deutso ministro errenak eskola-maissuak gobiernuak pagaten dituela ta beraz eskubidea daukala eurai aguinduteko zer eguin bear dabeen.

Katalanak erantzun deutse ostera, ia esan daiala Gobiernuari nok pagaten deutsen.

Ederto erantzuna. Eta esan lekio ausse be; eurak aoa betean esaten dabe Erriak nai dabena eguin bear dala beti ta orretarako dagozala eurak aguindu-le kuetan; Erriaren Nagusitasuna (soberanía popular) da eurea azalkaia. Bada Kataluñako Erriak nai dau katalanez ikastea; eta sinistuten ezpadau itandu daiola katalanai eurai, aguindu ori emon baiño len.

—

Gobiernuari tiroak atzerantza urtengo deutso arazo orretan guro ustez, Kataluñan beintzat. Errialde atan norbaitek asmau eidau (eta uste edo erechia arin zabaldu eida) eskolak sortutea, nun irakatsiko diran gauza guztiak katalanez, gobiernuak *iñoren* diruaz eutsi daroazan eskoletan baiño askozaz obeto.

Eta ez bakarrik mutikoentzako eskolak; bigarren ikaskuntza, ta irugarrena *(universidad-ekoa)* be nai dabe sortu katalanez.

¿Eta emen? Obe da issillik egon.

—

Martitzenean izan ziran azterketak Sestao-komusika bandako artezkaria zein izango zan jakiteko.

Amar izanziran aurkeztu ziranak, eta erabaguillen ustez, onena Manuel Gaintza izan zan, eta berau izentatu dabe.

Gaintza 18 urteko mutilla da, Tolosarra, ta Donostian musikia ikasitakoa. Zoriona berari, baita gueuri be; ¡betoz onuntz guiputzak,gure anaiak, belarrimotzez atsituta daukagu Bilbo-alde au-ta!

—

Lengo egun baten ikusi guenduen euskeraz ipiñita, ill-barriak iragarteko eguiten direan paperebuetariko bat.

Erderaz *recordatorio* esaten deutse, eta euskeraz eztakigu zelan; bearbada izenik eztauko ondiño.

Ubide-koa zan esan dogun paper ori.

¡Bestelako lelokeria! esan leike norbaitek. Izango da; baiña aiñ gagoz erderara jota eze, orretarikosse gauzachu batek be biotza nasaitzen deutso euskera maite maiterik daukanari.

IZKIRIMIRIAK

Bapo eguindiu

Guetariako neska zar bat, gaitzak baiño gueiago urteak, ekarri zuten azken egunetara. Sakramentatu zuten ondorean, esan zien illobaari, (abek etzuten gurasorik aspaldian) deitzeko lenbait len Escribau jaunari, bere munduko lanak bear bezala bukatzeko. Azken au entzutean illobaak; ¡aien poza!; etzuten bada uste isebak ezer zuanik, baiña gogoratu zitzaisten orma zuloetako ontzako urre zorrak. Bereala jarri erazi zuten kochea eta bai ekarri ere sekulako lazterrena Zumaiako Escribaua. Irichi zan au gassoaren ondora, eraso zion leguezko galdeerak eguiñaz eskribitzen eta irichi ziranean alera (1), esan zion izeko (2) zarrak:—Jauna, ni sekula ez naiz izan ezeren jabe, berorren nekea pagatzeko ere ez daukat; illobaak berriz kastu aundiak izango dituzte nere eleikizunarekiñ eta berorrek barkatuko baligu bere lana, nik pozik lagunduko nioke zerutik.—¡Gajua!; dio Eskribauak, ¿zertarako deitu nazu alako estutasunarekiñ, baldiñ ez badadukazu ezer iñori lagatzeko?, ez zeukazun orretarako nere bearrikan.—¡Ara berriz!; jauna, nik uste nuan, naiz pobre naiz aberatz izan, berorren aguiri gabe etzegoala illtzerik.

L. Oya.

—

Aspaldian ikusi etziran bi lagun zar arkitu ziran beiñ batean elkarrekiñ eta jolabisdeak ekarririk galdetu zion batak besteari:

—¿Famelirik bai aldezu?

—Seme bat, erantzun zion besteak.

—Oiezkero fumatzen ikasiko zuen.

—Eztu oraindik zigarrorik ikutu.

—Baiñan ardanteguira bidea jakingo du.

—Beiñere ezta izan oraindik.

—Eta parrandak... ¿maiz samar?

—¡Bai zera! illunabarrean lotara.

—¿Zenbat urte ditu bada?

—Urterik ere ez; bi illabete;

Ramóm Illarramendi.

(1) (al grano).
(2) (izeba, izeko; tia)

IGARKIZUNAK

I

Letra bat *lenengoa*,
Baita *bigarrena*,
Lenengoa berbera
Dozu *irugarrena*;
Guzti-tik artzen dogu
Guk bear doguna,
Ta *guzti*-tik sarritan
Galtzen da guizona

. . . . . .

. . . . . .

Irakurlea, igarri
Zeinke igarkizuna
Ostantzean etzara
Igarlari ona.

Zigarro-zaleak.

II

Azaroa Agorra
o

Guelbenzu.

Lengo astekoen epaiak: lenengoa, *Nekazaria*; bigarrena, *Asteazkena*.

Igarri dau bigarrena L. Oya-k.

LA EDITORIAL VIZCAINA deriobon moldaguintzan
Gran Vía, 26 eta Ledesma, 15.

IBAIZABAL

BIZKAITARREZ ETA GUIPUZKOARREZ EGUIÑA

Euskalerrian . . . . . 3 peseta urtean
Erdalerrian . . . . . 6 » »

Guei edo numero bakocha chakur chiki bat
Astean Asteangoa da, ta igandeetan edo domeketan urteten dau

Suskriziño lekua: Bilbon, Dendari kalean (calle de la Tendería), 19

JAUN JOSÉ ASTUY-RENEAN

Redakziño a: Bilbon, Tiboli, letra B, 2.° derecha

Iragarriak

1.° orrialdean . . . . . peseta 1 lerroa
3.n » . . . . . » 0,20 »
4.n » . . . . . » 0,15 »

Beste klaseetako iragarriak itundu edo conbenidu bearrekoak izango dira
Aurretik pagau bear dira, bai suskriziñoak eta bai iragarriak